

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2024ko azaroak 15 · 1332 zenbakia



GOZAMENEZKO KILOMETROAK HANKETAN



KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

ADMINISTRAZIOA

- ✓ Aurrekontua
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Jabeen batzarretan izatea
- ✓ Aktak egitea

KUDEAKETA

- ✓ Otrak
- ✓ Lizentziak eta laguntzak
 - Eusko Jaurlaritzak
 - Udala



LEGE AHOLKULARITZA

- ✓ Jabetza horizontala
- ✓ Ezordaindutako enklamazioa
- ✓ Sormen berriko komunitateen eraikuntza



30 URTEK GORAGOKO ESPERIENTZIAK BERMATZEN GAITU

943 200 358 - www.eukicomunidades.com - ARRIETA PERTSONALIZATUA ETA TELEFONOZ: 09-14:00 eta 15:30-19:20



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Dokorea


Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aduña Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian,
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian,
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomaturak,
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikan Diplomaturak,
Autran Institutua, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza,
New York-eko Unibertsitatea.
Okklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Dokorea.

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Gaztaina eta abesti artean ospatu zuten astelehenean Gaztañerre, Eibarko AEK-k bultzatutako ekimenean. Euskaltegiko ikasleez gain, hainbat herritar Paloma tabernan elkartu ziren eta, trikitilarien laguntzarekin, Amaña auzora abiatu ziren Amesti tabernan merienda egiteko.



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Behobia-Donostia

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Eskerrik asko AEK-kooi egiten duzuen lan finarengatik

Eibarren bertan aspalditik esan izan den bezala, berakatzza baino finagoak zaretelako! Astelehenean Amaña inguruan ospatutako Gaztañerre egunaren harira, eta bertan izandako alaitasun giroari erreparatuz, gure tradizioen alde egiten duzuen lana eskertu nahi nizueke. Badu meritua horrelako ohiturei eusteak, hain geureak ditugunak (Soraluze, Ermua eta Eibarkoa ere). Horrez aparte, aldi berean eskertu nahi nizueke euskararen alde urteetan egindako lan eskerga hori ere, gure hizkuntzari eusteaz gain, bera hauspotzeko egiten duzuen guztiarengatik. Ahalegin horrek Eibar bera aberasten duelako! ...eta kitto!-ren web orriak ikusitako Gaztañerreko irudiek bultzatu naute merezi duzuen errekonozimendu hau egitera, horrela koetara ez garelako askotan animatzen. Segi horrela, urte askotarako!

Marilo Ramos

Hortik esanak



Gorputza jartzea ez da erraza eta, horregatik, ni kontziente naiz urte askoan nahi izan dudala beste bat izan, taldeko besteak bezalako. Hau da, gizona izan nahi izan dut, arrunta izateko, neutroa, norma. Baina gero ohartzen zara beti izango zarela desberdin irakurria, gizon ez izateagatik eta, horretaz gainera, izugarri inportako zaiela altua zaren, edo handia zaren, edo femeninoa, edo nola mugitzen zaren, edo nola janzten zaren. Eszenako gizonek pauso bat atzera eman beharko dute; ze gehiegi dira, inguratuta gaude. Nik ez dut besterik ikusten, gizonak baino.

MIREN NARBAIZA, musikaria

Itsasoak basoek bezainbeste karbono xurgatzen du, laurden bat bakoitzak. Denok ahazten dugu gizarteari izugarrizko mesedea egiten diola, karbonoa xurgatzeaz gain beroa ere hartzen baitu. Atmosferaren beroketa gradu eta erdira gerturatzen ari da; ba, itsasoagatik ez balitz, askoz okerrago egongo ginatke, itsasoak hartzen baitu sortu dugun beroaren %90. Beraz, %10 bakarrik ari gara pairatzen, itsasoari esker.

MAXI CASTRILLEJO, itsas zientzialaria

Gerra Hotza bueltan da? Ekialdea Mendebaldearen aurka? Bai, baina baita txirotasunaren eta aberastasunaren arteko tentsioa ere, Iparraldea eta Hegoaldearen artekoa. Errusiak eta Txinak Iparraldeari irabazten dihardute partida, Afrikan zein Hegoamerikan. Hemen datua: Lulak Bahian ezarriko du auto elektriko txinatarren bere lehen fabrika, non eta aurretik General Motors-en planta batek zuen orubean. Atsotitzak dioenez, “guztia grisa ikusten baduzu, mugitueizu elefantea”. Elefantea gure itsutasuna da: ez dugu nahi ikusterik Hegoaldea dagoeneko ez dagoela Iparraldearen zerbitzura. Baina gu gara gasolina barik garatzen ari garenak.

ALVARO BERMEJO, zutabegilea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PASARA → Jipoa. “Atzo, sekulako pasaria emon etsen gure lagun bati”.

PASAIXA → Jipoa eman, hartu. “Bakarrik geratu zan lauren aurrian eta pasara edarra hartu eban”. Lehiaren batean, erraz irabazi. “Gaur azkoittiarri pasara gogorra emon detse Elgoibarko pelotalekuan”.

1953

Legarreko ospitaleko haurtzaindegia

Hango irudia da, seguruenik.

Ospitala 1901. urtean inauguratu zen. Hasieran laikoen esku zegoen, baina 1904az geroztik mojek kudeatu zuten, Diputazioak Udalari hala aginduta. Karitateko Mesedeetako Ahizpek 50 urte inguru eman zituzten bertan.

PLAZAOLA



Farmaziak

BARIXAKUA 15
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ZAPATUA 16
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
DOMEKA 17
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 18
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
MARTITZENA 19
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
EGUAZTENA 20
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 21
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
BARIXAKUA 22
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI, 2024an,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekueta	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Rafael Uriá Olabarria.**
81 urte. 2024-11-04.
- **Fausto Martínez Fernández.**
78 urte. 2024-11-04.
- **Remedios Borrajo Barrio.**
93 urte. 2024-11-05.
- **Bixenta Iturbe Larrañaga.**
89 urte. 2024-11-07.
- **Mari Jose Mendez Martínez.**
88 urte. 2024-11-08.
- **Gloria Martínez Martín.**
78 urte. 2024-11-09.
- **Felix Arranz Criado.**
92 urte. 2024-11-10.



Hizkuntza ofizialen erabilera irizpideak onartu ditu Udalak

Eibarko Udalak Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak onartu ditu, “Alkatetzako ebazpen bidez, aurretik zituen erabilera-gomendioak oinarri hartuta, eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzaren gidalarroei jarraituz”.

Udaletik adierazi dutenez, “herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzea eta errespetatzen direla bermatzea, euskara ere lan-hizkuntza izatea, eta herritarren artean eta Eibarko enpresa, erakunde eta elkarteetan euskararen erabilera sustatzea” lirakeke irizpideen helburu nagusiak. Horretarako, dokumentuak udal-lan-gileek bete beharko dituzten erabilera-arauak jasotzen ditu, hainbat ataletan bilduta: erakundearen irudia, herritarrekiko harremanak, barne-harremanak, kanpo-harremanak... Horrela, Udalak ezinbestean bermatu beharko du herritarren hizkuntza eskubideak betetzea, “eta, horretarako, udal-lan-gileek euskaraz artatuko dute beti herritarra eta, ondoren, hark aukeratutako hizkuntzan jarraituko dute”. Bestalde, Udalaren izeanean (lizitazio baten bidez, zein

dirulaguntza erabiliz) zerbitzu bat ematen duen enpresa edo elkarteak ere ezinbestean bete beharko du hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea. Horregatik, Udalak egiten dituen kontratuetan, ematen dituen dirulaguntzetan eta baimenetan hizkuntza-klausulak jasoko ditu. Horrez gain, eta euskara ere lan-hizkuntza izateko helburua betetze aldera, kontratatutako enpresei eskatuko zaie Udalarekin dituzten harremanak euskaraz izatea, ahal izanez gero, eta fakturak euskaraz edo ele bietan bidaltzea. Irizpideen betetze-mailaren ebaluazioa bi urtetik behin egingo dute. Irizpideen xehetasun guztiak Udalaren webgunean kontsultatu daitezke.

Diotenez, “lan horretan lagungarria izango da herritarrek ikusten dituzten ez-betetzeak jakinaraztea. Horretarako, hainbat bide daude: Astindu Eibar kanala, non partekatu daitezkeen hizkuntza-eskubideen inguruko edozein zalantzak, galdera, kexa edo iradokizunak; Udalaren webguneko kexak eta iradokizunak atala; edo Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzuarekin harremanetan jarrita”.

Trenaren borrokaren aldeko jardunaldia egingo dute bihar Altzolan

Trenaren aldeko Borrokaren Astea deitu du laugarren urtez jarraian Tren Publiko, Sozial eta Iraunkorren aldeko Espainiar Estatuko Koordinakundeak, Alianza por el Clima elkartearekin batera. Ekimenarekin bat egin du Altzolan Tren Geltokia Bai plataformak, eta beste hainbat eragilerekin elkarlanean, jardunaldia antolatu dute biharko Altzolan. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera hainbat gizarte-erakundetako ordezkariak hartuko dute parte: Alianza Por El Clima, Sagarrak Ekologista taldea, Ekologistak Martxan eta hainbat sindikatuk, besteak beste.



Photocan solidarioa Ipueruako merkatuan

Valentzian hondamendia eragin duten euriteek animalien aterpetxeei ere eragin die eta, eurei laguntzeko asmoz, Ipueruako Merkatu Plazan ekimen berezia egingo dute domekan, 11:00etatik aurrera: PhotoCAN. Txakurrei argazkiak egingo dizkiete, 5 eurotan, eta batzen duten diru guztia euriteengatik kaltetutako animalien aterpetxetara bideratuko da. Udalarekin eta Dog Es Perro elkartearekin batera antolatu dute ekimena.



San Andres jaietan murgiltzen joateko, eskola arteko bakailao lehiaketa eta pintxo txapeldunak

Sanandresak ate joka ditugula eta, XX. Eskola arteko bakailao lehiaketa hartuko du bihar Errebal Plazak, 10:30etik aurrera. Udalaren eskutik egingo den lehiaketan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Eibarren ikasten ari diren neska-mutiek hartuko dute parte, adinaren arabera bi ataletan banatuta. Antolatzaileen berbetan, “DBH 1-2 atalean 44 bikotek eman dute izena, eta DBH 3-4 mailetan bost bikotek. Beraz, zozketa egin behar izan da lehen atalerako 35 bikote aukeratzeko. Beste mailan aurreizena emandako guztiak onartu ditugu”. Partaide guztiak goizeko 10:00etarako Errebal Plazan egon beharko dira, antolakuntzak jarritako osagaiak (Bacalaos Alkortak emandako bakailao kilo bat eta Urzante olio birjina estra) jasotzeko. Beste osagaiak eta sukaldarako tresnak (kazuela barne) lehiakideek etxetik eraman beharko dituzte. Bakailaoa pil-pilean

prestatu beharko dute, eta maila bakoitzeko bikote irabazleak 200 euro eta garaikurra jasoko ditu sari gisa.

Bacalaos Alkorta pintxo lehiaketaren finala

Ikasleen arteko lehiaketa amaitu eta, jarraian, Bacalaos Alkorta VI. pintxo lehiaketaren show cooking finala hasiko da, Errebal Plazan bertan. Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako, Iparraldeko eta Nafarroako pintxo lehiaketetako txapeldunak lehiatuko dira bertan, eta 12:00etatik 14:00etara saritutako pintxoak prestatzen arituko dira, jendaurrean. Besteak beste hor egongo dira Durangoko Kobikako Iñigo Kortabitarte, Suspiro izeneko pintxoarekin, eta Gasteizko Borda Berri erretegiko Mitxel Suarez, Txipihai izenekoarekin.

Atzo egin zuten San Andres jaiak aurkezteko prentsaurrekoa udal txetan, eta esan zutenenez, “sanandresak

dresetako jai-egitaraua asteburu honetako zita gastronomikoekin hasi, eta hilaren 30ean amaituko da, urteroko azokarekin eta kontzertuekin”. Kultura Saitetik aurreratu dutenez, orain arte 42 ekoizle eta abeltzain inguruk eman dute izena nekazaritza-azokarako.

Aurtengo sanandresak iragarriko dituen kartel irabazlea ere atzo eman zuten ezagutzera: Alfredo Leon Mañuk irabazi du lehiaketa, *Sabor rural* izeneko lanarekin. 11 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoen kategorian, Lennon Franko Martinez izan da irabazlea, *San Blasitoak azokan* kartelarekin. Eta 10 urte artekoen kategorian, irabazlea Illari Aranzabal Castro izan da, *Jai alai* lanarekin.

Asteburu hau igarota, hurrengoan ere ekitaldi ugari elkartuko dira: barixakuan, 20:00etan hasiko da... eta kitto! Euskara Elkar-teak antolatutako XXVIII. Bertso Jaialdia, Coliseo antzokian. Hurrengo egunean Txistorraren Eguna ospatuko da Untzagan, Eibarko Txirrindulari Elkartearen eskutik. Eta azaroaren 24an, 11:00etan, Udalak antolatzen duen San Andres Saria Bakailao Txapelketaren XXX. edizioan 42 bikotek hartuko dute parte.



“El caso Freytter” dokumentalaren emanaldia eta mahai-ingurua eguaztenean

Udaleko Immigrazioa eta Kultura Aniztasunak, Jorge Adolfo Freytter Romero Elkartearekin antolatuta, eguaztenean (azaroak 20) “El caso Freytter” dokumentalaren emanaldia egingo da, Portaleko areto nagusian, 18:00etan hasita. Tonio Heckerrek zuzendutako lana gaztelera emango dute, euskarazko azpitoluekin, eta ondoren mahai-ingurua egingo da.

Jorge Adolfo Freytter irakasle, abokatu eta sindikalista 2001ean bahitu zuten Barranquillan (Ko-

lonbia), eta hurrengo egunean hilik agertu zen, tortura zantzuak. Hilketaren ondoren norakoak oraindik ere ez dituzte argitu, eta horri buruz ikertzeko haren seme Jorge Freytter Florian Kolonbiara itzuli da, 17 urtez Euskadin erbesteratuta egon eta gero. Lan dokumental horrek Kolonbiako errealitatearen alderik ilunetarrino eramango ditu ikusleak. Proiektzioak 85 minutuko iraupena dauka eta sarrera libre da, nahi duten guztientzat.

Nuvolak irabazi du Eibarko pintxo onenari saria, lehiaketaren 20. edizioan

Eibarko Tabernarien arteko XX. Eibarko Pintxo Lehiaketako irabazleak eman zituzten ezagutzera barixakuan Teresa Carmona, Unai Magunazelaia eta Joseba Muñoz epai-mahaikideek, eta pintxo onenari saria Nuvolak aurkeztutako *Kua Kua* izenekoari ematea erabaki zuten, aho batez. Horrekin batera, bertako produktuekin egindako pintxo onenari saria Bulebuk irabazi du (*Piroplasto* izenekoarekin), eta bezeroen 2.407 botoak zenbaituta, Amesti tabernarentzat izan da publikoaren saria, *Steak tartar gure erara* pintxoarengatik. Sari-banaketa ekitaldia San Andres egunean, azokan izango da.



Azaroaren 23an zuhaitzak landatzera animatu nahi dituzte herritar guztiak

Eibarko Baso Biziak taldekoek, Lurgaiako lagunekin batera, zuhaitz-landaketa egingo dute azaroaren 23an (zapatua), “neguko landaketa denboraldi berriarekin hasteko”, eta herritar guztiak parte hartzera gonbidatu nahi dituzte: “Zuen laguntza behar dugu bertako basoak berreskuratzeko, animatu eta parte hartu!”. Zuhaitz-landaketa Kaminburu inguruan egingo da, “ingurunearen birsortze natu-

rlean laguntzeko”, eta parte hartzera animatzen direnak Unben, goiko futbol zelaiaren aldamenean elkartzeko dira. Izena emateko, emaila bidali behar da eibarkobasobiziak@gmail.com edo info@lurgai.org helbideetara, azaroaren 21a baino lehen. Bertan izenabizenak, adina eta herria zehaztea eskatu dute (gaiari dagokion eremuan “Azaroak 23 Eibar” idatzi beharko da).



Murrategi lehenbailehen biziberritzeko eskatu dio Eibarko EH Bilduk Udalari

Eibarko EH Bilduk Murrategi auzoa “atzerapenik gabe” biziberritzen hasteko eskatu dio PSEri. Erredakziora bidalitako prentsa-oharraren arabera, “2023ko aurrekontuetan, Espainiako Gobernuarekin, Murrategi auzoa biziberritzeko 3 milioi euroko akordioa lortu zuen Euskal Herria Bilduk Legebiltzarrean. Ez dago aitzakiarik, beraz, biziberritzea errealitate ez bihurtzeko. Murrategirako inbertsioa hiriarentzat estrategikoa da, eta Eibarko ekialdearekin dugun konpromisoaren erakusle da”. Auzoa birgaitzeak

hainbat hobekuntza ekarriko dituela nabarmendu dute: lursailak erostea eta ondoren parke eta aparkaleku bihurtzea, ibilgailuentzako sarbideak hobetzea, galtzadak birgaitzea, inguruko argiztapena hobetzea eta auzoa beharrezko hiri-altzariz hornitzea. Gauzak horrela, Murrategi biziberritzeko “aukera paregabea” daukagula uste dute, “baita bizilagunei beraien etxebizitzak birgaitzeko lanetan laguntzeko ere, eta nola ez, ibaiari balioa eman eta aisialdirako gune berriak sortzeko”.

Eguneroko hitzak hamaika hizkuntzatan

Egunerokoan erabiltzen diren oinarrizko hitzak hainbat hizkuntzatan jasotzen ditu Elgoibar, Deba, Soralue eta Eibarko udalen Eskuko Hiztegiak. Hitzak euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez, portugesez, arabiarrez (baita ahoskera ere), urdueraz (baita ahoskera ere), woloferez eta errumanieraz daude.



Ekitaldiz betetako azaroa izango dute Untzagako gizarte zentroan

Hilabete honetarako agenda bete-betea prestatu dute Untzaga gizarte etxeokok. Astelehenean Gaztañerre ederto ospatu zuten, eta gaur belaunaldien arteko moda desfilea egingo da, 18:00etatik aurrera. Arduradunen berbetan, “adin guztietako modeloak egongo dira, eta Roca, Kopiña eta Helmet House dendeak hartuko dute parte. Hasieran Musika Eskolako soinu-joleek erakustaldi labur bat eskainiko digu. Ondoren, modeloen lehen pasea egingo da eta, tartean, umorezko esketx batzuk izango ditugu, Bilboko Amest Bete antzerki taldearen eskutik, jarraian modeloen bigarren paseari bide emateko”.

Astelehenean, berriz, “Zer behar dut tramiteak Internet bidez egiteko” izenburuko prestakuntza-hitzaldia eskainiko dute, 16:00etan, “Izenpe zer den, B@kQ-a zer den, eta horrekin zer egin daitekeen azaltzeko”. Eta eguaztenerako hitzordu bikoitza prestatu dute: 11:00etan “Administrazioa zugandik hurbil” prestakuntza-hitzaldia egingo dute, ziurtagiri digitalak zer diren irakasteko. Eta 19:15ean, berriz, Joseba Etxeberria SD Eibarko entrenatzailearekin solasaldia hasiko da.



Arrate-balle eta Elgoibarko baserritarrak, Karmen kaleko Loyola tabernaren atarian. Felisa Loyola bertako alabak emakume askori erakutsi zien karakolak prestatzen, Goi Argin ematen zituen sukaldaritza klaseetan. PLAZAOLA

Gabonetan prestatu ohi ziren platerak ditu hizpide. Gaztañerre egunean baba zuriak, karakolak, gaztaina erreak jaten...ospatzen zutela kontatzen du.

Gaztañerre egunaren ingurukoak

Luciana Larreategui Arizaga
(1912 – 2003)



Ardantza kalean jaio zen. Aita, Esteban Larreategi *Errotatxo*, eta ama, Euzkiñekua. Umetan udaletxeko eskolara joan zen. Jacinto Olabarekin grabatzen ikasi zuen, eta 1931n Eibarko Udalak Errepublikako presidentea zen Niceto Alcalá Zamorari oparitu zion pistola damaskinatua bien artean egindakoa zen. Aita bezala, Luciana ere mendizale amorratua izan zen, Errepublika sasoiari Eibarko Club Deportivo-ko Juntan bokal izatera iritsi arte. Grabadore lanarekin jarraitu zuen luzaroan, baina ezkondu eta urte batzuetara, Alfán hasi zen lanean.

Luciana Larreategui grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Eta ze gehixao jaten zan?] Gabonetan? Gure aittari-ta emon zetsen han korridia bota ebenian edo korridara... enbolaura jua zianian, baba zurixa ta bakillaua saltsa berdian, afarixa. “Uuu!!” Afarixa edarra! Ta dirua? “U!” Dirua ta dirua? Zer zanik pez dirua! Pozik haretxekin afarixakin! Afari ona zala ta... ordurako, afari ona! [Eta Gaztañerre egunian?] Gaztañerre egunian karakolak. Aurretik noberak nahi zebana ta gero karakolak. Baiña ostian ezebez, e! Ta gaztaiña erriak gero! [Zuek zebratzen zenduen Gaztañerre etxian?] Urte batzuk bai, urte batzuk zebratzen genduzen. Baba zurixa jaten genduan, baba zurixa ta karakolak. [Ta noiz izaten zan Gaztañerre? Ze, hor diskusiñua egoten da, ez?] Azertatzen dabena da, nobienbrian astelehen guztietan zebratzen dala. Haretxek azertatzen dau, e! (...) Bigarren astehelehenian zebratzen genduan geuk, ezta? Baiña beste batzuk lehelenguan be bai. Gero askok esaten eban: “Ene! Onena da, ba, astelehen guztietan zebratu ta azertau!” Dudan ibili barik... (...)

Unibertsitate Graduak

ATE IREKIAK



INGENIARITZA

- Arrasate AZAROAK 30 / ABENDUAK 14
- Galarreta EKO Campus ABENDUAK 14 (Orona Ideo)
- Bilbao AS Fabrik ABENDUAK 14
- Goierri-Ordizia ABENDUAK 14

ENPRESA KUDEAKETA

- Bilbao AS Fabrik ABENDUAK 14
- Oñati ABENDUAK 14
- Bidasoa-Irun ABENDUAK 14

EKINTZAILERIA

- Bilbao BBF ABENDUAK 12
- Bidasoa-Irun ABENDUAK 12
- Oñati ABENDUAK 12

HEZKUNTZA

- Eskoriatza AZAROAK 23
- Bilbao AS Fabrik AZAROAK 23

KOMUNIKAZIOA

- Aretxabaleta AZAROAK 23

HUMANITATEAK

- Bilbao AS Fabrik AZAROAK 23

GASTRONOMIA

- Basque Culinary Center
- Donostia AZAROAK 30



Eman izena!

www.mondragon.edu/ate-irekiak-graduak



Learning
from
reality

Rexcatering

Gure elikagaien zentzuzko kontsumoaren alde

Elikagaiak xahutzea
gustu txarrekoa da

Pertsona guztiontzako
doako vending makina.

Esan ezetz elikagaiak xahutzeari!



Eibarko Zero Zabor Hozkailua



Erreskatatutako elikagaiak
Egogain zentroko eta
J.A. Mogel ikastolako
jantokietatik datoz,
Eibarko Garagune
zentroaren laguntzarekin

Kokapena
Legarre kalea, 8
Egogain zentroaren
kanpoaldean
(frontoiaren ondoan)



San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazleak aukeratu dituzte

Eman du ebazpena ...eta kitto! Euskara Elkarteak Bertsolaritza taldeak, eta, honenbestez, honako hauek dira aurtengo San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazleak: 16 urtetik gorakoan artean, lehenengo saria Urko Egaña Oñatin bizi den azpeitiarrak eraman du berriro, "Handik hona" sortarekin, eta bigarren saria, berriz, Aimar Goenaga eibartarrarentzat izan da, "Nerabe gerade" sortarekin. Gaztetxoenen artean, 16 urtetik behera, J.A. Mogel ikastolako Libe Arizaga izan da irabazlea; bigarren saria, berriz, ikastetxe bereko Ekain Gabiolak irabazi du. Lau sarituek azaroaren 22an, barixakua, jasoko dituzte sariak San Andres Bertso Jaialdia hasi aurretik. Puntako seikotea etorriko da Coliseo antzokira aurten: Amets Arzallus, Jone Uria, Alaia Martin, Aitor Mendiluze, Jexux Mari Irazu eta Maialen Lujanbiok jardungo dute Jon Mikel Mujikaren esanetara. 20:00etan hasiko da jaialdia eta sarrerak Coliseoko leihatilan jarriko dira salgai, 8 eurotan, egunean bertan 17:00etatik aurrera.

Ongietorriko familiak Sosola baserriko sukaldean sartu dira

Joan den zapatuan ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako irteeran Sosola baserria bisitatu zuten Ongietorri programako hainbat familiak. Goizean goizetik sukaldean sartu eta, Aizpearen agindua jarraituz, ogi eta gaileta gozoak egin zituzten. Euskaraz egindako ekin-tza honetan parte-hartzailerik helduen seme-alabek egin zituzten itzultzaile lanak, euskaratik euren jatorrizko hizkuntzara itzuliz bertan entzuten zituzten azalpenak.



Miriam Luki izan da Harixa Emoten saioan

Idazle urretxuarra "Argialdiak" izeneko ipuin-bildumarekin izan da Juan San Martin liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duten irakurle-taldearen azaroko saioan. Ainhoa Aldazabalen gidaritzapean mamia atera zioten liburuari taldeko partaideek.



Barixakuak Jolasian Torrekuako parkean egingo da gaur

17:00etatik 18:00etara egingo dira jolasak gaur Torrekuako parkean. 2 eta 8 urte bitarteko haurrek izango dute jolasetan parte hartzeko aukera ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen ekimen honetan.



Gaztañerre ospatzen

AEK euskaltegikoek primeran ospatu zuten Gaztañerre. Aurten Amañaraino joan dira, eta Marisa Guillermo ikasle-ohiari ospitale paretik kantatu zioten, animoak emateko. Amesti tabernan amaitu zuten ospakizuna, afari-merienda ederrarekin. Bestela ere, eibartar askok afaria egin zuten, Gaztañerreko menua sekula falta ezin diren barraskilo eta gaztainekin.

Bideoak gure YouTube kanalean ikusgai



Argazki gehiago gure webgunean



“Tokian tokiko jendeari zerbait esaten dioten obrak egitea gustatzen zait”

ANDRES SAN MILLAN • Artista



Arrate Kultur Elkartearen Topalekuak erakusketa berezia jasotzen dihardu domekara arte (astegunetan 19:00etatik 21:00etara, eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara), New Yorken bizi den Andres San Millan artista eibartarraren lana baitago bertan ikusgai.

Eibar inguruko ibaietan eta hondartzetan bildutako egur zatiak hartu eta Eibarko langileen omenezko eskultura egin du San Millanek. ‘Eibar, donde el trabajador es arte. En busca de una nueva mitología vasca’ da erakusketaren izenburua eta, urte asko atzerrian bizi arren, herria barrenean daramala erakusten du bertan. Berritri New Yorkera aurki joango bada ere, bere obra hemen geratzea gustatuko litzaioke: “Beste toki batean ez luke zentzurik izango, Eibarrentzat egin dago”.

‘Eibar, donde el trabajador es arte. En busca de una nueva mitología vasca’ da erakusketaren izenburua. Zer islatu nahi izan duzu?

Buruan dudana kontatu ahal dizut, baina azkenean eskulturak pertsona bati esaten dionak ez du zertan artistak islatu nahi izan duenaren berdina izan. Lan honen Eibarko langileak onderratu nahi nituen. Horrelako eskulturak egin izan dira, baina nire ikuspuntutik egin nahi nuen. Horretarako, mendian, ibaietan eta itsasoan jasotako egur zati txikiak erabili ditut. Izan ere, niretzat egur zati bakoitzak gutako bakoitza irudikatzen du, eta denak elkarrekin daudenean sinbolo bat ikusten dugu. Eibarko industrian (metalgintzan, armagintzan...) ibili

diren langileak makiltxo bakoitzean daude irudikatu-ta, eta denek batera industriako langile baten irudia osatzen dute. Ez ditut negozioen jabeak irudikatu izan nahi, baizik eta langile xumeak.

Zergatik?

Langile horiek ez dituztelako inon ere aipatzen. Enpresari famatuak, asmatzaileak, presidentea, erregea... horiek aipatzen dituzte beti, piramidearen goiko aldean daudenak, baina gu piramidearen beheko aldean gaude eta inork ez gaitu aipatzen.

Eskulturaren, ordea, gizaki irudi bat baino gehiago azaltzen dira. Zer irudikatzen dute?

Industriako langilea ez da herriko industriaren irudi bakarra, gehiago daude. Eibarko beste sinbolo bat baserritarrak dira. Gaur egun ez da horrela, baina lehen asto gainean jaisten ziren herrira barazkiak saltzera. Gora eta behera ibiltzen ziren egunero, demasa da, eta egindako lan gogor horregatik baserritarrak ere onderratu nahi nituen. Eurak barik ez ginateke hemen egongo eta ez ginateke bizi garen moduan biziko. Izan ere, Eibar zoragarri ikusten dut gaur egun. Kalitatezko eraikina daude, jendea nahiko ondo bizi dela dirudi, kaleaz gozatuz, ez dago pobreziarik, umeak jolasten ikusten dituzu... Demografia ezberdina da eta beste herrialde



Domekara arte egongo da New Yorken bizi den Andres San Millanen erakusketa Topalekuan ikusteko aukera. EKHI BELAR

batzuetako jendea bizi da Eibarren, eta badirudi denon arteko harremana ona dela. Hori zoragarria da! Hori ikusi dut egun hauetan behintzat, ikuspuntu partziala da. **Euskal mitologia berriaren bilaketa aipatzen duzu izenburuan. Zer esan nahi duzu horrekin?**

Zerbait goraiatzaren dugunean sinbolo bihurtzen dugu, eta sinboloak mito edo legenda bihurtzeko gaitasuna dute. Nork daki eskulturaren goraiatzaren ditudan sinboloak mito bihurtuko diren ala ez, horregatik jarri dut euskal mitologia berriaren bilaketa dela.

Eskulturaz gain, beste eskultura batzuen argazkiak ikusi daitezke erakusketan. Zein zentzutan dira bata bestearen osagarriak?

Giza irudiari buruzko lanak dira guztiak. Langileekin zerikusia duten hainbat lan egin ditut dagoeneko eta argazkietan agertzen diren irudi batzuek gai horrekin zerikusia dute. Langileen eskulturak egiterakoan konturatu nintzen mailu eta zizel bana jartzea nahiko inozentea zela, horrek ez duela langile bat irudikatzen. ‘Nor da igeltsero bat?’, galdera etorri zitzaidan burura. Juan Perez igeltseroa izan daiteke, baina 08:00etatik 16:00etara bakarrik da igeltseroa, eta 22 urte zituenetik

“Eibarko industrian ibili diren langileak makiltxo bakoitzean daude irudikatuta, eta denek batera industriako langile baten irudia osatzen dute”

jubilatu arte (hori lan-bizitza guztian igeltsero lana egiten badu). Hau da, bere bizitzaren espazio jakin batean da igeltseroa. Ohera lotara joaten denean ez da igeltseroa, adibidez. Orduan, zer da igeltseroa izatea? Ilusio bat, mito bat, buruan asmatzen dugun zerbait. Juan Perez gizaki bat da. Gizakiak eskultura batean gorputz figurerekin irudikatzen ditut, eta gorputzak langileen irudiak dira. Ez bakarrik egin nahi ez duen hori egiten duen gorputz bat, baizik eta maila guztietan. Orain, elkarrizketa honetan, gure gorputzak lanean daude, aktibo daude, egoerara egokitzen dira, badakite nola egokitu, egoera ulertzen dute eta egokitzen dira. Hori da gorputzen eta

Elkarrizketa
osoa

buruaren adimena, hau da, gizakiaren ulerkuntza. Hori bildu nahi izan dut lan honetan.

Nola moldatu zara hemen inguruan bildutako egur zatiekin horrelako eskultura bat egiteko?

Urriaren 20an heldu nintzen Eibarrera eta eskulturaren ideia bakarrik nuen buruan. Ez nuen erremintarik edo makiltxorik ekarri. Javi Zabala lagunari etorriko nintzela esan nion eta aurkituko genuela lana gauzatzeko modua. Erremintak eta lan egiteko tokia aurkitu genituen, eta materiala Debako eta Saturraraneko hondartzan lortu dugu, besteak beste. 16 egun behar izan ditugu lana egiteko.

Tokiak eta inguruneak baldintzatu egiten du obra bat egiteko orduan? Hau da, obra hau New Yorken berdin berdin egin ahal izango zenuke, adibidez?

Teorian bai, materiala eta espazioa baduzu behintzat. Barneko tokietan lan egin izan dut eta baita kanpoaldean ere. Ibai bazterretan egin izan dut lan askotan, adibidez. Hori bai, obra ezberdina izango litzateke, tokian tokiko jendeari zerbait esaten dion obrak egitea gustatzen zait eta. Nire asmoa toki ezberdinetara joatea eta bertako jendearentzat obrakegitea da. Publiko aurrean lan egitea asko gustatzen zait, jendearekin berba egitea, eta abar.

Eibarko publikoak nola jaso du hemengo langileen omenez egindako obra hau?

Jendeari asko gustatu zaio, eta gustatu ez zaienek ez didate ezer esan (barreak). Jendea harritu egin da egur zati txikiekin horrelako eskultura bat egiteagatik. “Nola aurkitu dituzu toki bakoitzerako egokiak diren egur zatiak?”, galdetzen didate. Gustatzen zaizkidan zatiak aurkitzen ditut, gustatzen zaizkidan formak, eta gero non jarriko ditudan pentsatzen dut. Egur zatiak pilatzen ditudanean sortzen eta forma ematen hasten naiz.

Eskulturaz gain, arte diziplina anitzetan ibili izan zara. Zerk eramaten zaitu modu batera edo bestera espresatzeraz?

AEB-ra dantza egiteko asmoz joan nintzen eta oraindik dantza egiten jarraitzen dut. Asko gustatzen zait. Denetik egin nahi dut. Jakinmin askoko sasoian hazi nintzen. Jakinmina ospatu egiten zen, pixka bat dene-



“Jakinmin askoko sasoian hazi nintzen. Jakinmina ospatu egiten zen, pixka bat denetik jakin nahi genuen”

tik jakin nahi genuen. Pelikulak ikusi eta aztertu egin behar genituen, eta liburuekin berdin, irakurri eta aztertu egin behar genituen. Ezagutzaren erronka hori genuen. Horrela, egiten dudana artea barrenean dudana jakiteko gogo horren parte da. Inork ez daki den-dena, baina jakiteko gogo hor dago. Inoiz ez dut neure burua moztu gauza bat egin nahi izan dudanean, kontra-koa. Zerbait egiteko aukera badut, egiten saiatzen naiz, ondo edo gaizki egin, beti ikasten delako zerbait. Dantza egitea, margotzea, zizelkatzea eta antzerkia egitea asko gustatzen zait. Karroza asko ere egin izan dut, Eibar barrenean eramanez dudalako beti, eta Sanjuanez asko inspiratu naute zentzu horretan.



Energia fotovoltaikoa

Zenbat energia sor dezake eguzki-plaken instalazio batek?

Eguzki-energiak eta energia-iturri berriztagarriek funtsezko zeregina betetzen dute klima-aldaketaren aurkako borrokan eta energia-sistema iraunkorrako baterako trantsizioan. Eguzki-plakek, bereziki, bila-kaera teknologiko nabarmena izan dute, eta efizientea-goak eta eskuragarriagoak bihurtu dira, bai etxerako, bai industriarako. Horri esker, pertsona eta erakunde askok murriztu egin dute sare elektriko tradizionalekiko mendekotasuna, eta, hala, murriztu egin dituzte haien energia-kostuak eta karbono-aztarna.

Testuinguru horretan, gero eta ohikoagoak dira eguzki-energiaren funtzionamenduari, haren onurei, kostuei eta instalazioaren bideragarritasunari buruzko galderak.

Zenbat denbora irauten dute eguzki-plakek?

Eguzki-plaken balio-bizitza 25 eta 30 urte bitartekoa da. Denbora horretan zehar, elektrizitatea sortzeko gaitasuna apur bat murriztu daiteke, baina modu eraginkorrean funtzionatzen jarraitu ohi dute.

Zenbat energia sor dezake eguzki-plaken instalazio batek?

Energia-kantitatea sistemaren tamainaren, kokapenaren, panelen inklinazioaren eta instalazioak jasotzen duen eguzki-argi kantitatearen araberakoa da. 1 kW-ko eguzki-panel tipiko batek, Euskal Autonomia Erkidegoan 950 eta 1,400 kilowatt orduko (kWh) artean sor ditzake urtean, kokatuta dagoen eskualdearen arabera (barnealderago eta gehiago).

Zer alde dago eguzki-energia fotovoltaikoaren eta termikoaren artean?



Eguzkiaren energia baliatzeko sistema nagusiak bi dira: fotovoltaikoa eta termikoa. Lehenengo sistemak eguzki-plaken bitartez eguzkiaren energia fotovoltaikoa jasotzen du eta elektrizitate bihurtzen. Bigarren sistemak, berriz, urez beteta dauden hodi batzuen bitartez, eguzkiaren energia termikoa (beroa) jasotzen du eta energia horrek ura berotzen du, eta kasu batzuetan lurruna sortuz, turbina bat mugitu eta elektrizitatea sortu ere bai.

Eguzkiaren energia baliatzeko bi sistema hauek gero eta ohikoagoak dira gure herrietako teilatuetan, bai etxe partikularretan, bai eraikin publikoetan eta baita lantegietan ere.

Zer da autokontsumorako instalazioa?

Autokontsumo elektrikoaren instalazioa kontsumo propioko energia berriztagarria ekoizteko gai den instalazioa da. Autokontsumoak faktura elektrikoan aurreztea dakar, baina baita sarearekiko independetzia handitzea ere, eta beraz, baita tarifa elektrikoaren prezioaren aldaketekiko mendekotasun txikiagoa.



Energia Bulegoa eskualdeko herritarren zerbitzura

Informazio gehiago eskuratzeko kontsultatu Debegesaren webgunea edota jo zuzenean Debarrenen Energia Bulegora.

Energiari buruzko edozein informazio edota aholkularitza jaso nahi izanez gero, idatzi edo deitu Debarrenen Energia Bulego Birtuala zerbitzura. Doako zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen du bailarako herritar, komunitate eta enpresentzako.

- Webgunea: energia.debegesa.eus
- E-posta: agenda2030@debegesa.eus
- Telefonoa: 943 82 01 10.

Kantatzeko plazer hutsarengatik

BIDEOA




Kantatzen ez duenak, ez du zorionik. Hori dio Antton Aldalurrek eskuan duen kantu liburuak eta, esaldiari beste buelta bat ematen badiogu, kantatzen duenak zoriona jasotzen duela pentsatu genezake. Hain zuzen ere, filosofia horri eusten dio hamabost egunean behin, astelehenetan, 19:00etan, Kultun elkartzen den kantuzale taldeak.

Arrate Kultur Elkarteko zuzendaritzako kidea da Antton Aldalur eta, ekin-tza berriak egiteko asmoz, “kantuzalea naizenez”, bere berbetan, “lehengo euskal kantuen (Mikel Laboarenak, Xabier Leterenak...) tailer moduko bat egitea pentsatu genuen”. Udaberriari hasi ziren kantu saio irekiekin, uztailean etena egin zuten, eta udatik bueltan berriz hartu zuten martxa, gaur egunera arte.

Kultukoen proposamenak erantzun ona jaso zuen eta hamar lagun inguru elkartzen dira saio bakoitzean. Saioak irekiak dira eta ez da inolako konpromisorik eskatzen; beraz, edozein egunetan joan daiteke eta, ezin denean, ez dago arazorik kale egiteko, baina normalean talde polita elkartzen da elkarrekin abesteko.

Gu geu astelehenean joan ginen kantu-saioan egiten dutena bertatik bertara ezagutzera eta, saioak Gaztañerreren ospakizunarekin bat



egin zuenez eta normalean bertan egoten diren lagun batzuek beste konpromiso batzuk zituztenez, lagun gutxi elkartu ziren Kultuko hitzaldi-gelan, baina salbuespeneko egoera izan zen.

Azken finean ez dira profesionalak, “ahal duguna egiten dugu” dioskue parte-hartzaileek. Abestearen plazer hutsarengatik eta euskal kantak ikasteko gogoarengatik batzen dira. “Ondo pasatzen dugu”, diosku Aldalurrek. “Ez da maila altua duen jenderik abestera etortzen, kantatzea gustatzen zaion jendea baizik, beste barik”.

Abestiak buruz ikasi

Antton Aldalur arduratzen da taldea dinamizatzeaz, baina ez dute irakaslerik eta arlo teknikoari ez diote garrantzi berezirik ematen. “Ez dugu bi ahotsetan ezta hamarretan ere abesten. Beno, agian ahots askotan egiten dugu, bakoitzak berean”, diosku barrez.

Hasieran bi abesti lantzen hasi ziren (‘Behin betiko’ eta ‘Mendia gora haritza’), letrak eta doinuak buruz ikasteko gogoz. Horrela, behin eta berriz errepikatuz, abesti gehiago ikasten joan dira eta abesti-sorta bat buruz ikasi dute dagoeneko.

Saioetan, ostera, buruz ikasi nahi dituzten abestiez gain, gehiago abesten dituzte. “Gure artean erronda bat egiten dugu eta gutako bakoitzak kantu-paperetik abesti bat aukeratzen du”, azaldu digu Aldalurrek. Horrela, buelta bat edo bi egiten dituzte eta buelta bakoitzean aukeratutako abestiak kantatzen dituzte, hori bai, papera erabilita, ez buruz. “Estrofaren bat buruz

Kantu-saioak hamabost egunetik behin egiten dituzte, astelehenetan, 19:00etan, Kultun.

>>> Hamar lagun inguru elkartzen dira hamabost egunetik behin, astelehenetan, Kultun egiten dituzten kantu-saio irekietan

badakizu, papera ezkutatu eta buruz egiten duzu, baina bestela letra irakurriz. Horrela, poliki-poliki, abestiak ikasten ditugu”. 40 abestitik gora dituzte kantu-paperean, baina gehienetan errepikatu egiten dira parte-hartzaileen gustoko kantak eta, errepikapenaren poderioz, letrak buruan iltzatzen dira.

Aldalurrek esan digunez, “batzuk uste dute ez direla gai abestiak ikasteko, eta horrela bada, kitto, ez dago arazorik; baina nik uste dut geroz eta gehiago ikasi ahal dugula..



Euskal kanta tradizionalak buruz ikasteko asmoz elkartzten dira hainbat lagun Kultur. EKHI BELAR

Ahal den neurrian buruari eragin behar diogu. Nik neuk, kotxean edo dutxan nagoenean, abestu egiten dut, eta kanta osorik baldin bada- kit, hobeto. Kantu-paperarekin ez naiz dutxara joango ba!”.

Kantu batzuekin gauza bitxi bat gertatzen da: batak edo besteak abesti bera modu ezberdinean eza- gutzea. “Batzuek abesti baten zati bat errepikatu egiten dutela diote eta beste batzuek ez, edo doinua beste modu batekoa dela... Horrelako eztabaidatxoak ere izaten ditugu”, Aldalurrek esan digunez.

Kantatzeko ohiturari eutsi

Parte-hartzaile batzuk Bilbora eta Donostiara joaten dira hango kantuzaleekin abestera, beste batzuk Eibarko Kantuzaleak taldean ibili izan dira, baina denak afizio hutsez, abestea maite dutelako. “Kalejiretan ibili gara batez ere, ez abesbatzetan eta horrelakoetan”, zehazten dute. Oso eibartarra da (edo izan da) hori,

>>> Euskal kanta tradizionalak gogoratzeko eta letrak buruz ikasteko gogoz elkartzten dira

>>> Saioetan parte hartzea irekia da eta edonork egin dezake nahi duenean

kalean eta lagun artean abestea, eta kantu saio irekietan parte hartzen dutenek uste dute hori galdu egin dela pixka bat. Modu honetan, ohitura horri eutsi nahi diote eta, momentuz, Kultur aritzen dira. Hori bai, ez diote kalean abesteari uko egiten. “Gustatuko litzaidake egunen batean kalean elkartu eta taldean abestea. Gai izatea kantu bat hasi eta amaitzeko, buruz abestuta, lotsatu gabe. Badakigu ez ditugula demaseko ahotsak, baina kalean kantatzeko zer behar da ba? Gogoia bakarrik”, diosku Aldalurrek.

Kantu-saio irekietan parte-hartzeko zabal-zabalik daude Kulturko ateak. Hamabost egunetik behin egiten dituzte, astelehene- tan, 19:00etan, eta bertan agertzea nahikoa da kantuan egiteko. “Doakoa da, ez da matrikularik egin edo izenik eman behar”, zehaztu digute. Dena dela, informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, 638 284 912 telefonora deitu daiteke.



IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA

Ez gaitzala olatu atzerakoiak ito

Urriak 24 da, arratsaldea. Erredakzioan nago. Albisteak irakurtzen hasi naiz berriz ere, hedabideetan, X sare sozialean... eta, bapatean, titularra: Iñigo Errejon politikaria salatu dute indarkeria matxistagatik. “Joder, boteredun -ustez- ezkertiar bat” pentsatu dut lehenik. “Nola iritsi da izan duen posturaino? Zer dela eta ez du aurrez inork salaketarik jarri?”, gero. Arrazoiak, horien atzean dagoen indarkeria sistematikoa... teoria feminista guztia arrapaladan etorri zait burura. “Zer dela eta kuestionatu dut emakumea?”. Lagunen edo norberaren bizipenetan oinarrituz, isiltasuna erraz konprenditu dut. Horrek ez du barnean dudan egonezin eta haserrea baretzen.

Eguneroko bazka dugu indarkeria matxista. Gisele Pelicoten kasua, Frantzian; Errejon, eta eskandaluaren harira atera diren testigantza uholdea Espainian, baita Ajax eta Prok raperoei indarkeria matxista leporatzea ere, kasu.

Euskal Herria ez da salbuespena. Iruñeko Lehendakaris Muertos musika taldearen gitarrista indarkeria matxistarekin loturiko prozesu judizialean sartu da, sexu indarkeria egotzita. EHUn, Leioako kanpuseko ikasle feministek irakasle batek neska gazte bat erasotu duela ezagutarazi berri dute. Azken 10 egunetan azalerazi diren berriak dira.

Eibarren ere ezagunak ditugu hainbat gertaera. Oihartzun handia izan zuen Luna eta Enrich futbolarien aurkako salaketa, esaterako. Badakigu Raket Lopez Airas eibartarra eta haren semea erailak izan zirela. Edo 2020an emakume bat labankadaz zauritu zuela 17 urteko gizon batek. Herriko jaietan ere jazo izan dira erasoak. Mugimendu Feministako kideek ongi dakite hori.

Aurrera begira ez datoz garai onak. Eskuin diskurtsoa dugu borborka, eta ezkerrera ere iritsi da. Indarkeria matxista ukatzen duten diskurtsoak aurrera egiten ari dira. Hori bai, diskurtso bat modu oso argian babestuta ere, praktikan kontraesanez beterik gaude denok. Zaila da onartzea, zaila da lanketa bat egitea. Lokatzetan sartzea eta aitortzea da lehenengo pausoa. Ez gaitzala olatu atzerakoiak ito.

“Diskurtso bat modu oso argian babestuta ere, praktikan kontraesanez beterik gaude denok. Lokatzetan sartzea eta aitortzea da lehenengo pausua”



BAZKIDE zertarako?

Euskarazko kulturgintza sustatzeko



Illunabarrian

Era, gai eta formatu ezberdinetako hitzaldiak, mahai-inguruak, tailerrak eta ikuskizunak antolatzen ditugu, bospasei urtean zehar. Euskaldunei zuzendutako aisialdi, formazio eta kultur eskaintza ematea da helburua eta, aldi berean, euskaldunen arteko harreman-sarea osatzea, erabilera zabaldu dadin

zarelako **para**


Egin zaitez bazkide!

Ipuruako gimnasten senior taldeak Euskadiko txapela jantzi zuen Gasteizen

Gasteizeko San Andres kiroldegian aurreko domekan jokatuak Euskadiko Txapelketan, Nahia eta Haizeder Arguiz, Naroa Alonso, Indira del Pino eta Maialen Apraizek osatutako boskoteak puntuaziorik onena lortu zuen bi errotazioen ondoren, bigarrenari bi puntu eta erdi atereaz. Urrezko horrek indar berezia emango die hemendik hilabetera jokatu den Espainiako Txapelketari begira itxaropenak gehitzearekin batera. Bakarkakoetan ere Maddi Teran eibartarra Es-

painiako Koparako sailkatu zen, bosgarren geratu ondoren.

Baina ez zen domekakoa Ipurua-koek zuten erronka bakarra izan, bezperan Gipuzkoako Txapelketa jokatu baitzen Azpeitian. Bertako emaitzak ere ez ziren gutxiagorako izan: Ipuruako oinarri infantil mailakoek urrezkoa jaso zuten, eta seniorren eta oinarri jubenilen taldeek zilarrezkoa irabazi zuten, ahaztu barik Maddi Teranek irabazitako txapela oinarri jubeniletako bakarkakoan.



Jon Gorrotxategi bikain Mirandesen

Jon Gorrotxategi Eibarko erdilaria denboraldi bikaina dihardu egiten Mirandesekin. Realak lagata Burgosko taldean jokatzeko duen erdilaria taldearen iparrorratza bihurtu da, SD Eibar-en kontra jokatu zuen neurketan ere erakutsi zuen bezala. Ez hori bakarrik: azken jardunaldian, pibote postuan jokatu arren, Mirandesek Cadizekin bina berdindu zuen norgehiagokan, berak egin zituen bi golak.

"Ur azpian ere mendiak ikusten dira!"

Aurtengoa urte berezia izan da Eibarko Klub Deportiboarentzat, ehun urte bete baititu. Batzorde bakoitza zerbait desberdina antolatzen egon da buru-belarri hori ospatzeko. Urpekaritzakoek antolatutako arteen, "Euskadiko Apnea Txapelketa", "100 bataio ur azpian" eta "Apnea ikastaroa" daude. Eta oraingoa "Ur azpiko mendiak" ekitaldia egin dute, "Deporteko banderatzoarekin argazkia aterata". Horrela, Mendi taldekoek

erronka gogorra ipini zuten bezala "Baietz 312. Han goitik itsasoa ikusten da" ekimenarekin, Urpekoen taldean "Ur azpian ere mendiak ikusten dira" pentsatu zuten. Horregatik joan ziren taldean Deporte banderatzoa itsas azpian ipintzera; hori bai, nola "ez dugun topatu inor banderatzoa eraman dezan (itsasoak garbi mantendu behar dira)", Banderatzoa Urpekaritzako Federazioan geratu dela dioskue Urpeko batzordekoek.





XI. Asier Cuevas herri-lasterketa bihar arratsaldez

Asier Cuevas herri lasterketaren XI. edizioa jokatuko da zapatuan. Zazpi kilometro eta erdiko ibilbidea duen proba horretarako www.sailkapenak.com web orrian eman daiteke gaur arte. Lasterketa arratsaldeko 17:30ean hasiko da eta egun horretako ekitaldi guztiak, sari-banaketa tarteko, 19:30era arte iraungo dute.

Ibarra-Agirresarobe txapelkunak Astelenan

Pilotazale asko bildu zituen jaialdian, Eibarko Ibarra-Agirresarobe bikoteak helduen mailako Gipuzkoako txapelketa bereganatu zuen. Txapelkunek, gainera, ikuskizuna eskaini zieten Astelenan bildutakoiei, eta espero zena baino errazago irabazi zioten Lasarte-Oriako Intza klubeko Artetxe-Urdanpilleta bikoteari. Neurketa parekatua izango zela zirudiena azkar erabaki zen, atzean Agirresarobek erakutsitako sendotasunarekin batera, aurrean Ibarra gazteak bere eskumarekin tanto bikainak egin zituelako. Garaipen horrekin, gainera, klubak mailaz igotzea lortu dute.



Zapatuan, bestalde, Eskolarteko jardunaldia hartu zuen Katedralak, inguruetako pilota-eskoletako alebin mailako neska-mutilen parte-hartzearekin. Bihar, zazptua, benjaminen txanda izango da bertan.



83 eibartarrek amaitu zuten Behobia-Donostia maratoi erdia

Eibarko 83 atleta heldu ziren domeka goizean Donostiako Boulevardera, eurretako 25 emakumezkoak. Iazko kopuruarekin parekatuta, jaitsiera eman da gure herriko ordezkarien artean, 2023an 100 lagun helmugaratu baitziren; hori bai, orain dela bi urte oraingoaren antzerakoa izan zen gure herrikoen parte-hartzea (orduan 86 izan ziren maratoi erdia amaitu zutenak). Bestalde, Behobia-Donostiaren 59. edizio honetan, izena eman zuten 27.722 korrikalaritik, 25.182 izan ziren azkenean parte hartu zutenak; hau da, %9ak kale egin zuen. Helmugara 24.970 lasterkari iritsi ziren; beraz, 212 izan ziren proba laga zutenak.

405 Eneko Azurmendi	1:16:32"	6544 Marna Labaka	1:38:12"	14126 Manu Gorrope	1:51:22"
409 Javier Perez	1:18:49"	6556 David Rialto	1:38:15"	14155 Jon Mora	1:51:26"
13226 Gorka Larrañaga	1:22:29"	6669 Raul Ramos	1:38:28"	14487 Jon Perez	1:52:01"
2119 Ibai Alonso	1:26:58"	6739 Daniel Mounza	1:38:33"	14488 Iñaki Vilagorria	1:52:01"
2184 Unai Oteandiano	1:27:12"	6949 Ander Aizal	1:38:58"	14478 Aitor Anleta	1:52:02"
2010 Eduardo Alvarez	1:27:38"	6967 Mikel Azpurgamaga	1:38:59"	14617 Oscar Rodriguez	1:52:17"
2434 Unai Elbar	1:28:03"	7045 Aitor Zubizarreta	1:39:06"	15636 David Fernandez	1:54:08"
2629 Paula Pereira	1:28:42"	7057 Leire Alvarez	1:39:08"	15976 Maddalen Galdoz	1:54:43"
3376 Aitor Oiarzabal	1:30:55"	7059 Iosu Lahizaga	1:39:08"	15981 Miran Galdoz	1:54:44"
3521 Mikel Gesabaga	1:31:19"	7081 Jokin Guferraz	1:39:10"	16803 Carlos Balseiro	1:56:22"
2620 Ivan Makarenko	1:31:35"	7267 Leire Cabo	1:39:22"	16854 Roberto Gallego	1:56:25"
3784 Alex Sarrazua	1:31:59"	7212 Iñaki Laruskain	1:39:22"	18121 Maider Diaz	1:58:50"
3696 Egoitz Plaza	1:32:18"	7525 Ibon Ramirez	1:39:53"	18132 Leire Marín	1:58:54"
3937 Eduardo Kapelastegi	1:32:25"	7633 Aitor Aranzeta	1:40:03"	18143 Ibon Martin	1:58:55"
4218 Felipe Sanchez	1:33:26"	8538 Enrique Salgado	1:41:40"	18196 Miguel Bilbao	1:59:02"
4298 Luis Bello	1:33:16"	8627 Unai Mora	1:42:11"	18204 Maite Bilbao	1:59:02"
4367 Jose Arzaga	1:33:27"	9091 Borja Sarriena	1:42:39"	18663 Iker Lassun	1:59:56"
4582 Esther Velasco	1:33:58"	9308 Asier Arana	1:42:50"	18895 Jara Larrañaga	2:00:29"
4697 Paul Agne	1:34:14"	9641 Sandra Guin	1:43:55"	18899 Oihane Sarz	2:00:29"
4837 Juan Solozabal	1:34:37"	9232 Eduardo Uribe	1:44:38"	19187 Iñaki Urfulueta	2:01:13"
4846 Ion Aizpuru	1:34:38"	11957 Gorka Apraxiz	1:44:32"	19423 Aitor Velasco	2:01:41"
5338 Iker Lopez	1:35:48"	11959 Nekane Alende	1:44:32"	20340 Gorka Fernandez	2:04:29"
5470 Iune Orueta	1:36:01"	11964 Elisabet Unamuno	1:44:33"	21461 Unai Gallastegi	2:08:36"
5487 Gorka Fernandez	1:36:04"	12184 Jonathan Cid	1:44:58"	21502 Ana Abizua	2:08:46"
5611 Ander Lahizaga	1:36:22"	12276 Jorge Martinez	1:44:58"	21921 Olatzane Lizasoain	2:10:37"
5686 Miran Gallastegi	1:36:30"	13088 Maximo Martinez	1:44:33"	23114 Alexander Telaria	2:10:25"
5851 Ion Zubizarreta	1:36:53"	13094 Ainhoa Martinez	1:44:34"	23608 Iñaki Ibarra	2:08:22"
6376 Gorka Gallastegi	1:37:53"	13511 Jon Medrano	1:50:15"		



Eibar Rugby Ohorezko B Mailako liderra da

Orain arte jokaturako partidu guztiak irabazita, emakumezkoen Ohorezko B Mailako orain arteko talde indartsuena dela erakutsi du Eibar Rugbyk. Azken jardunaldian Ohorezko Mailatik jaitzita bi taldeen arteko lehia, eibartarrak 5-12 nagusitu ziren Olímpico de Pozueloren zelaian: partiduaren

24. minutuan madrildarrak aurreratu baziren ere, lehenengo zati horretako azken minutuetan Yamila Oterok lehenengo eta Lorea Marek gauzatutako Leire Markiegiren bigarren entseguak markagailua irauli zuten Javier Aguadok gidatzen duen taldearen alde, bigarren zatian 5-12koari eusteko.

Boni Plaza eta Ganix Rodriguez izan ziren onenak Iruzubietako bolatokiko tiraldian

Ziortza-Bolibarko bolatokian jokaturako Euskal Herriko Hiru-Txirilo Txapelketako laugarren jardunaldian bi bolari horiek izan ziren onenak, zazpi txirilo etzanda. Sei bota zituzten Julen Uranga, Asier Azkarate eta Mateo Guenagak, eta bostekin geratu zen Sergio Rodriguez. Emaitza horiekin txapelketako 34. edizioko gaur egungo sailkapen nagusian hiru bolarik egin dute aurrera, atzetik datozenekiko aldeak handituz: Oier Azurmendi markinarra 19 txirlorekin da lider, eta txirilo bakarrera jarraitzen diote Asola Berriko Ganix Rodriguezek eta Asier Azkarate elgetarrak.

Txapelketako bosgarren jaurtialdia bihar jokatu da Aramaioko Untzillako bolatokian, betiko bitetik 17:00etan hasita.



Tiraldian lehenengo sei postuetan sailkatutako talde-argazkia.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

Madrid CFF - EIBAR (bihar, 17:00)

Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Racing Ferrol (bihar, 14:00)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Tudelano - EIBAR B (etzi, 17:00)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - Huesca (etzi, 15:30)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR C - Deusto (etzi, 15:30)

Emakumezkoen Euskal Liga

Mariño - EIBAR C (etzi, 15:30)

Erregionaleko Gorengo Maila

URKI - Lazkao (bihar, 18:00)

Zestoa - EIBARTARRAK (bihar, 16:30)

Erregionaleko 1. Maila

URKI B - Antzuola (bihar, 15:30)

Ohorezko Jubenil Maila

EIBAR - Txantrea (etzi, 12:45)

Jubenilen Nazional Liga

Athletic B - EIBAR B (bihar, 15:30)

Kadeteen Euskal Liga

EIBAR B - Santutxu (bihar, 10:30)

FUTBOL-ZALETUA

- Bar Marem - Adahi Etxegi (bihar, 09:00)
- Kalaka Buenos Aires - BOJ (bihar, 10:30)
- Malape - Garajes Garcia (etzi, 09:00)
- Limpieza Rueda - Baserri (etzi, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

EIBARTARRAK - Eskoriatza (bihar, 17:30)

ESKUBALOIA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila

Berango Urduliz - MEK EIBAR (bihar, 18:00)

Gizonezkoen 1. Nazional Maila

MEK EIBAR - Tolosa (bihar, 18:30)

Emakumezkoen Euskadiko Liga

MEK EIBAR B - San Adrian (etzi, 11:30)

Gizonezkoen Lurraldeko Liga

MEK EIBAR B - Aloña Mendi (bihar, 16:30)

SASKIBALOIA

Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Aldapeta - ARTES. JUANTXO (gaur, 21:15)

Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

EIBAR - Internacional Mons (etzi, 11:30)

Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

Modelos Modelberri - EIBAR B (bihar, 13:00)

WATERPOLOA

Gizonezkoen Euskal Herriko Liga

URBAT B - CW Sestao (gaur, 21:30)

GINNASIA ERRITMIKOA

Uteboko Udalaren Txapelketa

Senior, Oinarri Jubenil eta Oinarri Infantil taldeak (bihar) eta Maddi Teran oinarri jubenila bakarka (etzi)

“Behobia-Donostia ez dut modu konpetitiboan hartzen, festa moduan baizik”

EDU URIBE • Korrikalaria



24.000 lagun inguruk hartu zuten parte, domekan, Behobia-Donostia lasterketan. Tartean 83 eibartar izan ziren eta, nola ez, Edu Uribe ere bertan izan zen. Bere 32. aldia zen Gipuzkoako lasterketen ikur den honetan (1989. urtean egon zen lehen aldiz) eta, marka lortzeko helburu barik, gozatu egin zuen 20 kilometrotan zehar.

Elgoibarren bizi den eibartar honek oso gaztetatik izan du antxintxiketan egiteko zaletasuna. Korrika egitea hain modan ez zegoen sasoiari hasi zen eta, errepidean aritzeaz gain, mendian ibiltzea biziki gustatzen zaio, hainbat abentura bizi izan dituelarik.

Zer moduz joan zitzazun azken Behobia-Donostia lasterketan?

Ebakuntza egin didate apendizerearen alboan eta ez naiz hain topera ibili, baina tradizioa da Behobia-Donostia egitea eta joan nintzen. Aurtengo edizioa oso ona izan da. Eguraldiaren aldetik, eguzkia egin arren, 12-13 gradu zeuden, giro bikaina korrika egiteko. Gainera, ez zuen haizerik egin eta kostaldera heltzean ez zigun kaltetu. Antolakuntzaren partetik, esan behar da urtero gero eta hobeagoa dela. Agian gauza txikiak dira, baina adibidez irteerara ahalik eta erosoan heltzeko informazioa helarazten dute, komunetan jendea noiz sartu kudeatzen dute...

Ez da erraza izango, jende askok hartzen baitu parte. Bai, parte-hartzaile kopuruari muga jarri diote. Aurtun 27.000 lagun inguruk eman zuten izena, baina azkenean 25.000 inguruk hartu dugu parte. Emakumezkoen

parte-hartzea ere asko igo da azken urteotan. 1990ean parte-hartzaileen %5 edo %8 zen emakumezkoa eta gaur egun %30 da. Antolakuntzaren helburua %50era heltzea da eta lortuko dutela uste dut.

Nola moldatzen zarete hainbeste jenderen artean korrika egiteko?

Batzuetan traba egiten diogu elkarri (barreak). Orain dela urte batzuk lasterketariok ez genuen txipik erabiltzen eta Bulevardeko helmugara iristerakoan gure dortsala ikustean eskuz hartzen zuten denbora. Beraz, irteeran kronometroa guztioi batera jartzen zigutenez martxan, denok nahi genuen ahalik eta arinen irten. Gero, txipa sartu zutenean, irteera kajoika egiten hasi ziren, koloreen bitartez ezberdinduz, bakoitzak duen denbora-markaren arabera. Horrela, jende asko dagoen arren, irteeran ez da kolapsorik gertatzen. Hori bai, bidean zehar beti duzu jendea alboan korrika egiten.

Zer du Behobia-Donostia lasterketak hain arrakastatsua izateko?

Euskal Herriko lasterketarik zaharrenetakoa da. Lehen edizioa 1919an egin zen eta Juan Mugerza elgoibartarra irabazi zuen. Alpagatekin egin zuen lasterketa, zoru guztia asfaltatu gabe zegoenean, eta ordubete eta 17 minututan egin zuen. Gerra Zibilarekin etenda egon



Distantzia luzeko ibilbideak egiteko zaletasuna du Edu Uribek.

zen, baina gero berreskuratu egin zuten eta beti izan da lasterketa aitzindaria. Nire kasuan, 19 urterekin aritu nintzen lehendabizi, irakasleak animatuta. Gustatu zitzaigun eta tradizio bihurtu da bertara joatea.

Parte-hartzaile askok lasterketa inguruan sortzen den giroa nabarmentzen du, bide guztian dagoelako jendea animatzen. Nola bizi da hori barrutik?

Hasieran Joseina Etxeberria egoten da musika jartzen eta animatzen, oso ohikoa da Errenteria inguruan txistulariak eta danbor-joleak egotea, Ategorrieta hasieran batukada talde bat izaten da, Pirata famatua ere beti dago bide ertzean... Animazioa uneoro dago. Gainera, kanpotik datorren jendeak, kataluniarrek adibidez (6.000tik gora etorri dira), kirol-turismoa egiten dute eta, lasterketan parte hartuko dutela aprobetxatuta, inguruak bisitatzen dituzte, sagardotegira doaz, eta abar. Batzuek, Donostia inguruan tokirik aurkitzen ez dutenez, Eibarren edo Ermuan hartzen dute ostatu.

32 edizioetan parte hartuta, imajinatzen dugu anekdota ugari izango dituzula, ala?

Bai, pila bat! Hasierako edizioetan denbora ona egitea nahi izaten nuen, baina gero lagun giroko lasterketa

“Hasieran Joseina Etxeberria egoten da musika jartzen, ohikoa da Errenterian txistulariak egotea, Ategorrietan batukada taldea, Pirata famatua bide ertzean...”

bihurtzen joan da eta lagunak parte-hartzera animatzen ibili naiz. Emaztea ere horrela hasi zen, lehen ez zuen korrikarik egiten, baina Behobiarako prestatu zen eta orain urtero egiten du. Behin, anaiarekin joan nintzen eta berandu genbiltzan irteerara iristeko. Orduan, Iruñera trenean joan ginen eta handik korrika joan ginen Behobiaraino. Guztira 23 km egin genituen! (barreak)

Gaur egun nola hartzen duzu lasterketa hau?

Lasterketa honek egoera fisiko onean egotera behartzen zaitu. Behobia-Donostia egingo ez banu, lasaiago ibiliko nintzateke; baina, lasterketa egiteko helburua dudanez, prestatu egin behar izaten dut. Ez dut modu

Elkarrizketa
osoa

konpetitiboan hartzen, sasoi haiek pasa ziren, eta festa moduan hartzen dut. Ondo pasatzera joaten naiz. Emaztea eta biok egiten dugu, eta guretzako hartzen dugun asteburua da. Hiru seme-alaba ditugu eta gure asteburua izaten da Behobiakoa.

Jai-giroa eta festa aipatzen dira, baina azkenean 20 km dira. Ez da txantxa. Errespetua zor zaio lasterketari?

Noski! Distantzia luzea da, aldapak daude eta errepi-dean egiten da, iztarretan sortzen den ohiko minarekin. Beraz, ondo entrenatu behar da. Adibidez, prestakuntza ona izan daiteke Aixolako presara igotzea eta bertan buelta bat ematea. Ondo prestatzen baduzu, lasterketa lasaiago egin dezakezu eta hurrengo egunetan ere hobeto sentituko zara. Bero handia egin duenean edo norberak bere buruari gehiegi eskatu dionean gertatu dira heriotzak.

Badirudi gero eta jende gehiagok egiten duela korrika. Hasi zinenean berdina zen?

Gure irakasleek esaten ziguten euren sasoiaren jendea oso arraroa egiten zitzaioela jendea fraka motzetan korrika ikustea, baina ni hasi nintzen sasoiaren normalagoa zen. Gizonezkoak bazeuden, baina egon den aldaketa nagusia emakumeen artean eman da. Izugarri hazi da antxintxiketan dabilen emakume kopurua. Emakumeen ahalduntzean laguntzen duela ere uste dut. Kirola egitea ona da osasun fisikoarentzat eta baita mentala-arentzat ere. Sozializatzen asko laguntzen du, zuzenean eta birtualki. Behobiak, adibidez, asko lantzen du hori, argazkiak eta bideoak jartzen dituelako parte-hartzaileen esku gero eurek partekatzeke. Jendeak asko demandatzen du hori. Guk geuk Galdaramiñoko Igoera antolatzen dugu eta datorren urtean, lehenengo aldiz, argazkilaria kontratatuko dugu.

Lasterketan bizitakoa partekatzeke gogo hori, argazkiez gain, egindako denborekin ere gertatzen da, ezta?

Bai, hori da. Sozialki egiten bada ondo dago, baina badago nolabaiteko obsesioa duen jendea eta neurria hartu behar zaio, edozein gauzatan bezala. Ahal bada, jendearekin korrika egitea gomendatzen dut. Unben pista ederra dugu eta talde polita elkartzen gara korrika



“Kirola egitea ona da osasun fisikoarentzat eta baita mentalarentzat ere. Sozializatzen asko laguntzen du, zuzenean eta birtualki”

egiteko. Deporreko atletismo taldeak lan polita egiten du kirola bultzatzen.

Errepideko lasterketez aritu gara, baina beste alor bazuetak probatan ere ibili izan zara, ezta?

Bai, ultradistantzia lasterketak egin ditut, baina gaur egun ez. Orain, neure kabuz egiten ditut. Adibidez, Pirinioetako zeharkaldia zortzi aldiz egin dut modu autonomoan. Hiru seme ditut, 25 ikasle, eta niretzat denbora behar dut (barreak). Irakaslea naizenez, udan denbora izaten dut eta emazteak joateko esaten dit (barreak). Berak ere pare bat aldiz egin du zeharkaldia. Bestalde, mendiko lasterketei dagokienez, Hiru Handiak (1989an lehen aldiz) egin izan dut, eta atzerrian ere egon naiz, adibidez Spine Race lasterketan.



SAN ANDRES BERTSO JAIALDIA

AZAROAK 22

AMETS
ARZALLUS

JONE
URIA

ALAIA
MARTIN

AITOR
MENDILUZE

JEXUX MARI
IRAZU

MAIALEN
LUJANBIO

COLISEO ANTZOKIA / 20:00

EIBARREN

GAI-JARTZAILEA JON MIKEL MUJIKA

-sarrerak egunean bertan salgai 8€-

ANTOLATZAILEA
eta kitto!
euskara elkarte

BABESLEAK



EIBAR
Euzko Auzumartea



Basque Government



Saama terapia-saioa Begoña Ogizaren eskutik

Martitzenean Saama 3.0 terapia-saioa eskainiko du Begoña Ogiza adituak ...eta kitto! Euskara Elkartearen Illunabarrian programaren barruan. Elkartearen egoitzan izango da, 18:30etik 21:30era. Ogizaren hitzetan, “gure bizitzan oreka lortzeko desblokeo kuantiko energetikoa landuko dugu, baita sanazio rekonektiboa eta sonoterapia ere, kuenko tibetarrak erabiliz”. Hori guztia, “ongizate fisiko, mental, emozional, energetiko eta espirituala lortzeko”. Izen-ematea zabalik dago. Horretarako telefonoz deitu daiteke ...eta kitto!-ra (943200918), edo mezua bidali elkarte@etakitto.eus helbidera (5 euro balio du, 4 euro euskara elkar-terko bazkideentzat).



Kontzertua emango du Xabier Badiolak gaur Elgetan

Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak eta Ozkarbi elkarteak antolatuta, Xabier Badiola eibartarrak kontzertua emango du gaur, 19:30ean Elgetako Ozkarbi elkartearen. Bakarkako bere lana aurkezteko emanaldia eskainiko du. Etxean autoekoiztua, diskoak 10 kantu ditu (horietatik hiru instrumentalak, gainerakoak letradunak, euskaraz). Sarrerak 5 euro balio du (Goibekoko bazkideentzat 3 euro).



Domeka eguerdian itxiko ditu ateak Liburu Azokak

Euskadiko Liburu Ganbararekin batera Udalak antolatzen duen Eibarko Liburu Azoka domeka eguerdira arte egongo da Untzagan. Asier Muniategi azokaren antolatzailearen berbetan, gerturatzen direnek euskarazko eta gaztelaniazko azken nobedadeak aurkitu ahal izango dituzte, eta genero eta gai ugari, denak %10eko deskontuarekin. Hamairu stand daude guztira, inguruko argitaletxe eta liburu-denden eskaintza zabalarekin. Horrez gain, Eibarko Udalak ere bere postua ipini du, eta Araceli Bono eibartarrari lekua egin diote bertan, berak argitara eman dituen bi poesia-liburuak (*Entre mis tacones* eta *Confesiones de otoño*) saltzeko.

Emakumeenganako indarkeriaz arituco dira Pagatxaren bideo- forum eta antzerki-solasaldian

Gaur 18:00etan hasiko da Andretxean *Volar* dokumentalaren proiektzioa. Lan horretan parte hartu duten bi emakumeren testigantzekin, Patricia Perex Cotok dinamizatutako solasaldia egingo da jarraian. Eta datorren barixakuan (22an), 18:30ean Portaleko areto nagusian, *El Nombre* lanaren inguruko antzerki-solasaldia egingo da. Emakumeenganako indarkeriak azaltzen dituen lana antzeztu ondoren, artistarekin lanari buruz berba egiteko aukera izango dute parte-hartzaileek. Pagatxaren eskutik izango dira biak eta sarrera libre da.





Zapatuan banatu ziren XXV. Asier Errasti Film Laburren Jaialdiko sariak

Zapatuan egin zen XXV. Asier Errasti Eibarko Film Laburren Jaialdiko sari-banaketa, Coliseon, Javier Aguirresarobe sariei izena eman dien argazkilari eibartarraren parte-hartzea izan zuen ekitaldian. Hogeigarren edizio honetako sari nagusia Lucia Jimenezek eraman du, *El Trono* filmarekin; euskarazko atalean, Jone Arriola Lobeteren *Dena Asmatuta dago* lana saritu dute; animaziozko film labur onenaren saria Martin Romeroren *To bird or not to bird* izenekoarentzat izan da; EiTren sari berezia, berriz, Ekain Irigoyenek hartu du, *Europa* lanarengatik; eta fikziozko bigarren saria Sandra Santiago eta Pilar Gomezen *Colorado* filmarentzat izan da.



Txotxongilo eta musikarekin kontatutako istorio laburrak

Titirijai Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren eskutik, Frantziako L'Alina taldeak *Istorio laburrak* (*Zaku handidun otsoa*, *Sisifo txikia* eta *Edipo*) aurkeztuko ditu azaroaren 23an (zapatua), 17:00etan Coliseon. Eskularruruzko txotxongiloekin, hitzik erabili gabe, eta zuzeneko musikarekin lagunduta kontatuko dituzte istorioak. Sarrerak 5 euro balio du.



Alberto San Juanen “Macho grita” komedia musikala gaur

Macho grita umorezko antzezlan musikala ikusi ahal izango dugu gaur, 19:00etan, Coliseo antzokian. Alberto San Juanen lan hau Don Juanen mitotik abiatzen da, gure orainaren eta 1492. urteak hasiera eman zion zikloaren arteko harremana aztertzeko. Hurbilketa pertsonala egiten du “Errekonkistara”, “Amerikaren aurkikuntzara” edo juduen eta moriskoen kanporatzaera, lurralde honetan “*lo macho*” nola eraikitzen den umorez pentsarazteko. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Bi argazki-erakusketa tabernetan

Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik, bi erakusketa ikusi daitezke hilaren amaierara arte: Marcel van Balkenen argazkiak Klub Deportiboaren tabernan daude ikusgai, eta Virginia Arakistainenak, berriz, Portalea tabernan.



Edoskitzeari buruzko argazkiak

Debabarreneko ESik amagandiko edoskitzeari buruzko IX. argazki-lehiaketa deitu du, eta lanak aurkezteko epea domekan itxiko da. Lanak BPSO.OSIDEBA-BARRENA@osakidetza.eus helbidera bidali behar dira, izena emateko orriarekin eta irudia hartzeko eta zabaltzeko baimenarekin batera. Bi agiri horiek, lehiaketaren oinarriak eta bestelako informazioa Interneten eskuratu daitezke.





Hor lagako dugu? Bizia ematen badiogu? Benga, partida bat! RAMONBEITIA



Bixenta Iturbe Larrañaga

2024/11/07

"Urak dakarrena urak daroa. Zuk emandakoa gurekin geldituko da"



- ETXEKOAK -



Javier Usobiaga Barrenechea

2. URTEURRENA
2022/11/19

"GURE BIHOTZETAN BETIRAKO IZANGO ZAITUGU"



ASKO MAITE ZAITUGU
- ETXEKOAK -



Coro Zubicaray Aguirregabiria

10. URTEURRENA
2014/06/23

Calixto Ulacia Beristain

3. URTEURRENA
2021/11/20

"Beti egongo zarete gure bihotzetan"

- ALABAK ITZIAI, AMAIA ETA NEREA ETA FAMILIA -



ESKERTZAK ETA URTEURRENAK

Urkizu, 11 - solairuarte
publizitatea@etakitto.eus

688 62 76 89

●●●

FUNEUSKADI

Funeraria

●●●

FUNERARIA MUGICA

Funeraria




24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Osoola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixillon, s/n, SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdesoleina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

6			2	5	1	
5	4		7		2	
	2		1			
8			6	4		
	3				9	
		6	1		3	
				1	2	
6			5		3	9
2	9	7			4	




soluzioa

S U D O K U

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

				2	5
	6	1		4	8
			4	2	6
2		4			1
	1	5	7		9
9			6		3
	4	7	5		
7	3			1	5
5	1				



soluzioa



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK

BURUA ZERTXOBAIT ASTINTZEKO ARIKETAK

NENUFAREAK LAKUAN

Laku bateko superfizian nenufareak daude. Egutero bikoiztu egiten da nenufareen bezperako hedadura. Laku gutzila betetzeko 48 egun behar izan badira, zenbat egun beharko ziren lakuaren erdia betetzeko?

48 egun. Zenbatizko erdia izango da 48 eguneko erdia bikoiztuaren erdia.

MAKINAK ETA ARTIKULUAK

5 makinak 5 artikulu idazten badituzte 5 minututan, zenbat denbora beharko dute 100 makinak 100 artikulu egiteko?

5 minutu. 100 makinak 100 artikulu idazten badituzte 5 minututan, 100 makinak 100 artikulu idazten badituzte 5 minututan.

Azaroak 15 / 21

BARIXAKUA 15

LIBURU AZOKA

11:30/13:30 eta 17:30/20:30
Disko eta liburu berrien aurkezpena eta salmenta. Untzaga.

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolasak, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Doan. Torrekua.

BIDEO-FORUMA

18:00/19:30 Emakumeen istorioak: "Volar" dokumentala + bi emakumeren testigantzak. Dinamizatzailea: Patricia Perex Coto. Doan. Andretxea. Txaltxa Zelai.

ANTZERKIA

19:00 "Macho grita", Alberto San Juanen komedia musikala. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ZAPATUA 16

LEHIAKETA

10:30 XX. Eskola arteko bakailao lehiaketa, DBH-ko ikasleentzat.
12:00/14:00 "Bacalaos Alkorta" txapeldunen arteko pintxo lehiaketaren "showcooking" finala. Errebal Plaza.

LIBURU AZOKA

12:00/14:00 eta 17:30/20:30
Disko eta liburu berrien aurkezpena eta salmenta. Untzaga.

ZAPATUKO IPUINA

17:00 "Nire etxea zure etxea da", Maite Franko ipuin-kontalariaren eskutik. Portalea (areto nagusia).

LASTERKETA

17:00/18:00 Asier Cuevas Herri Lasterketaren XI. edizioa. T. Etxebarria kalea (hasi eta amaitu).

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzan dabilzaten umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

DOMEKA 17

PHOTOCAN SOLIDARIOA

11:00 Argazkiak, 5 eurotan. Etekinak DANAK kaltetutako animalien aterpetxeetara bideratuko da. Ipuruako merkatu plaza.

LIBURU AZOKA

12:00/14:00 Disko eta liburu berrien aurkezpena eta salmenta. Untzaga.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzan dabilzaten umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

MARTITZENA 19

ILLUNABARRIAN

18:30/21:30 Saama 3.0 terapia-saioa, Begoña Ogiza adituaren eskutik. ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitza (Urkizu, 11 solairuartea).

AUZU-BILERA

19:00 Udal arduradunak, Amañako bizilagunekin. Amañako parrokia.

EGUAZTENA 20

HITZALDIA

10:00/12:00 "Masoneriaren eragina gizartean", Iñaki Zuloagaren eskutik. Ikasten elkarteak antolatuta. Sarrera librea. Armeria Eskola (areto nagusia).

DOKUMENTALA

18:00 "El caso Freytter". Dokumentala eta mahai-ingurua (gaztelerez, euskarazko azpiztituluekin). Portalea (areto nagusia).

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko borondateei buruzko informazio zerbitzua, Ikasten elkartearen eskutik. Untzaga gizarte zentroa (Arrate aretoa).

AUZU-BILERA

19:00 Udal arduradunak, Ipuruako bizilagunekin. Ipuruako jubilatuek etxea.

EGUENA 21

HITZALDIA

11:00/12:00 Lapurreta eta iruzurren inguruko hitzaldia, Ertzantzaren eskutik. Beheko Tokia gizarte-ekintza gunea.

HITZALDIA

18:00/19:30 "Soilik bai da bai legearen zarata mediatikoak eragindako itzalak argitzen", Sara Arruti eta Maider Galardiren eskutik. Gaztelerez. Andretxea.

AUZU-BILERA

19:00 Udal arduradunak, Urkiko bizilagunekin. Urkiko parrokia.

ERAKUSKETAK

Azaroaren 17ra arte:

- "Eibar donde el Trabajador es Arte; en Busca de una Nueva Mitología Vasca", **ANDRES SAN MILLAN**.

(Topaleku)

- **INDALECIO OJANGUREN** 37. argazki lehiaketako lanak. (Portalea)

- "MNEMÓSINE", Carmen Palomeroren instalazioa. (Portalea)

Azaroaren 29ra arte:

- "LUMINESZENTEAK". (Andretxea)

Azaroaren 30era arte:

- **MARCEL VAN BALKEN-en** argazkiak.

(Deporroko taberna)

- **VIRGINIA ARAKISTAIN-en** argazkiak.

(Portalea taberna)

Eskualdeko Agenda

ERMUA

- 15ean (BARIXAKUA)

Kontzertua

20:30 Ermua Antzokia Idoia

- 16an (ZAPATUA)

Kontzertua

20:00 Lobiano Kulturgunea Xime Monzón Blues Band

ELGOIBAR

- 15ean (BARIXAKUA)

Antzerkia

19:00 Herriko Antzokia

"Eseñaren kolorekoa"

- 16an (ZAPATUA)

Magia Jaialdia

19:00 A. Agirre Kulturgunea

Alain Zulaika

- 17an (DOMEKA)

Magia Jaialdia

18:30 eta 20:00 Kultur Etxea Magia Gala

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **16an:** 19:30, 22:30
- **17an:** 20:00
- **18an:** 19:30

“La cocina”
DRAMA



2024/Mexiko/139'
Zuzendaria: Alonso
Ruizpalacios
Protagonista: Rooney Mara,
Raul Briones, Anna Diaz

2 ARETOA

- **16an:** 17:00, 19:45, 22:30 (A)
- **17an:** 17:00, 20:00
- **18an:** 19:30

“Azken erromantikoak”
DRAMA



2024/Espainia/102'
Zuzendaria: David P. Sañudo
Protagonista: Miren Gaztañaga,
Maika Barroso, Eric Probanza
Komedia / Emakume bakartia

ANTZOKIA

- **16an:** 16:30, 19:30, 22:30 (2)
- **17an:** 17:00, 20:00
- **18an:** 19:30

“Gladiator II”
ABENTURAZKOA



2024/AEB/148'
Zuzendaria: Ridley Scott
Aktoreak: Paul Mescal,
Pedro Pascal, Connie Nielsen
Sekuela / Aspaldiko Erroma

1 ARETOA

- **16an:** 17:00
- **17an:** 17:00

“Elli & equipo de monstruos”
ANIMAZIOA



2024/Alemania/87'
Zuzendaria: Piet De Rycker
Komedia / Mamuak / Umeentzat

2025eko komertzio eta zerbitzuen
GIDA



**LASTER
KALEAN**

Zure establezimendua,
elkartea edo enpresa
agertzeko **azken egunak**

Tel. 688 62 15 35

943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **PAULE**, atzo 3 urte bete zenuzaten eta. Musu haundi bat aitxitxa eta amaren partez.



Zorionak, **MAIALEN!** Eguaztenian 4 urte bete zenuzaten eta! Musu potolo bat famelixaren eta, batez be, Manex eta Koraren partez!



Zorionak, **YARA**, martitzenian 12 urte bete zenuzaten eta. Gozatu ahal dozun gehixen! Zure famelixaren partez.



Zorionak, **AIZEA** Barrutia, haraiñegun 14 urte bete zenuzaten eta. Famelixakuon eta, batez be, Ane eta Maialenen partez.



Eguzkixari buelta barri bat, **MIKEL!** Daganeko 8! Jarraitu oiñ arte bezala! Asko maitte zaittugu. Etxekuen partetik.



Zorionak, **AIMAR**, eguenian 4 urte bete zenuzaten eta! Segi hain alai izaten. Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez.



X
F. Calbeton, 12 943096884
OKINDEGIA / GOZOTEGIA
TXUTXE-DENDA
JANARIDENDA TXIKIA
XABALO
2024
datorren 20an
ZU EKIN

leku berri bat Ego-Gain, 2
943 558728
TOPA-LEKU
taberna
egunero elkarrekin egoteko

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.3. Konpartitzeko

- Pisukide baten bila nabil Eibarren. enorahrenriquezsistia-ga@gmail.com

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Tailer mekanizatuia salgai. 667895597.
- Lokal zentrikoa salgai. 25 metro karratu. 688686786.

3.2. Errentan

- Lokala atokagai Urkizun. 35 metro karratu. Komuna, ura eta argiarekin. 685758326.
- Garajea alokagai San Juan kalean. 639643600.
- Lokala alokagai Urkizun. Gazteentzako aproposa. Baimenarekin. 600776887.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko. Osasun ziurtagiriarekin. 642855788.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. 632768653.

- Erizaina eskaintzen da edozein lanetarako. 642437753.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile bezala. 631489919.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko: etxeak, soziedadeak... 602051567.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan umeak zaintzeko. 617804844. Elene.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (erizain laguntzailea) eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. 633101852.

4.2. Langile bila

- Administrataria behar da astean zehar 8 ordu egiteko Elgoibarko enpresa batean. info@emaergonomia.com
- Emakumea behar da nagusia zaintzeko. Akreditazioarekin. 646206088.
- Taxi-lizentzia traspasatzen da Elgoibarren, jubilazioarengatik. Enpresa bezeroen-kartera Debabarrenan. 686234718.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Korrika egiteko zinta salgai. la berria. 671258740.
- Labe txiki elektrikoa (Teka) salgai. la berria. Prezioa adosteko. 671506728. Valentin.
- Jatorrizko Trispace lo-zakua (Serval) salgai. Prezioa adosteko. 631849563. Gorka.

6.2. Eman

- Sofa oparitzen dut, egoera onean. Tel 672428273.
- Arrazoi pertsonalak tarteko, katu helduak arduraz adoptatzeko aukera eskaintzen dut. 688852207.

gremioen gida



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ELEKTRIZITATEA



TELEKOMUNIKAZIOAN
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
argentziak

610 532 922 www.thelecer.com

KRISTALAK



J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com eta faxa:
943 203 903

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA

balta toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txenta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun

Aziltain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

PLAGEN AURKA



PLAGANATURA
PLAGEN AURKARI ZERBITZUA

www.plaganatura.com

943 206 700
EL GORRIAK



943-206776

Errekatxu Berri Bizigunea

Azken etxebizitza, garaje eta lokalak
eskuragarri Eibarko erdigunean

BISITA EZAZU GURE PISU PILOTU BERRIA

2 eta 3 logelako
etxebizitzak:
210.000€tik aurrera



Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

 **Loiola**
Espacios para vivir